

## **LABek ez du parte hartuko bihar burutuko den segregazio mahaiaren bileran Jaurlaritzak Hezkuntza Legearen aldekotasuna inposatu nahi baitigu**

**Hirugarren bileran segregazioari aurre egiteko printzipio eta balioak landu baziren ere, Jaurlaritzak eragileok bertan landutakoak baztertu ditu eta Hezkuntza Legeak jasotzen dituen printzipioak aurkeztu ditu 2. fasearen ondoriotzat**

Segregazio Mahaiaren laugarren bilera burutuko da bihar Gasteizen. Bertan, Hezkuntza Sailak 2. fasea bukatutzat emango du eta 3. faseari ekingo dio, eskola-segregazioari aurre egiteko garatuko diren lerroak eta proiektuak definitzearen faseari, alegia.

Azaroaren 12an gogorarazi eta salatu genuenez, Hezkuntza Sailak aldebaikarrez onartu zuen segregazioaren diagnostikoaren dokumentua. Bada, oraingo honetan, printzipioen fasesa ere aldebaikarrez itxi du, Jaurlaritzak hezkuntza eragileoi Hezkuntza Legearen aldekotasuna inposatu nahi digularik. Kasu honetan, gainera, inolako lotsarik gabe azaroaren 12an mahaian parte hartu genuen eragileok segregazioari aurre egiteko printzipio eta balioen lanketari egin genizkion ekarpenak guztiz baztertu ditu eta Hezkuntza Legearen printzipioak aurkeztu ditu ondoriotzat.

Jaurlaritzaren helburu bakarra eragileak mahaian parte hartzen ari direla irudikatzea izan da. Izan ere, segregazioaren mahaiko bigarren bileran eragile askok metodologia kritikatu izanaren ondorioz, inprobisazioari helduz metodologia guztiz aldatu zuten, helburu bakar gisa parte hartzea zuen metodologia planteatuz azken bileran.

Alabaina, metodologia aldatu eta eragileok talde txikietan gure proposamenak azaldu eta eztabaideatu genituen arren, emaitza bestelakoa izan da, printzipio eta balioak aldebaikarrez inposatzea. Badirudi edukiek ez zutela axola. Segregazioari aurre egiteko muinari heldu gabe, soilik PNV eta PSEk onartu zuten Hezkuntza Legea eragileoi saltzea izan da asmoa.

LABek publikoki aurkeztu zituen bere proposamenak, dekalogo batean jaso zituenak, eta mahaira eraman ditu, gaur gaurkoz, inolako eztabaidearik gabe eta maltzurki ezkutatu eta baztertu egin direnak.

Hortaz, Jaurlaritzaren aldebakartasuneko jokaera honen aurrean biharko bileran ez parte hartzea erabaki du LABek. Izan ere, seguruenik Hezkuntza Sailak bileraren emaitza gisa iragarriko baitu 2. fasesa, printzipio eta balioena, itxi eta bukatu egin dela Hezkuntza Legeak jasotzen dituen printzipioetan fokua jarriz. Eta LABek ez du onartuko mahaian ekarpenak egiten egon eta hauek aldebaikarrez baztertzeaz gainera, Jaurlaritzak maltzurki nahi duen errelatoa inposatzea.

Berriro ere Jaurlaritzari exijitzen diogu itxurakeriak uzteko eta langileon ordezkarri guztiokin gaiari sakontasunean heltzeko, horretarako, segregazioari aurre egiteko printzipioak eta neurri zehatzak mahai negoziatzailetan landuz.

## **LAB no participará en la reunión de la mesa de segregación que se celebrará mañana argumentando que El Gobierno Vasco quiere imponernos la defensa de la Ley de Educación**

**A pesar de que en la tercera reunión se trabajaron los principios y valores para hacer frente a la segregación, el Gobierno Vasco ha rechazado los contenidos trabajados por los agentes y ha presentado como conclusión de la fase 2 los principios que recoge la Ley de Educación**

Mañana se celebrará en Gasteiz la cuarta reunión de la Mesa de Segregación. En ella, el Departamento de Educación dará por finalizada la fase 2 y comenzará la fase 3 de definición de las líneas de trabajo y proyectos que se desarrollarán para hacer frente a la segregación escolar.

Como recordamos y denunciamos el 12 de noviembre, el Departamento de Educación aprobó de forma unilateral el documento de diagnóstico de segregación. Pues bien, en esta ocasión, también ha cerrado unilateralmente la fase de principios, pretendiendo el Gobierno Vasco imponer a los agentes educativos la defensa de la Ley de Educación. En este caso, además, sin ningún pudor, ha rechazado totalmente las aportaciones que los agentes que participamos en la mesa el 12 de noviembre hicimos a la elaboración de los principios y valores para hacer frente a la segregación y ha presentado como conclusión los principios de la Ley de Educación.

El único objetivo del Gobierno Vasco ha sido visualizar la participación de los agentes en la mesa. De hecho, como consecuencia de la crítica a la metodología por parte de muchos agentes en la segunda reunión de la mesa de segregación, actuando de manera improvisada cambiaron totalmente la metodología, planteando en la última reunión una metodología que tenía como único objetivo participar.

Sin embargo, aunque cambiaron la metodología y los agentes expusimos y debatimos nuestras propuestas en grupos pequeños, el resultado ha sido otro, la imposición unilateral de principios y valores. Parece que los contenidos no importaban. La intención del Gobierno Vasco ha sido sin entrar en el meollo de la segregación escolar vendernos a los agentes la Ley de Educación que aprobaron PNV y PSE.

LAB ha llevado a la mesa las propuestas que presentó públicamente, el decálogo de medidas contra la segregación escolar, que hoy por hoy, sin ningún tipo de debate, se han ocultado maliciosamente y rechazado.

Por lo tanto, ante esta actitud unilateral del Gobierno Vasco LAB ha decidido no participar en la reunión de mañana. De hecho, seguramente el Departamento de Educación anunciará como resultado de la reunión de mañana que la fase 2, de principios y valores, se ha cerrado y finalizado poniendo el foco en los principios que recoge la Ley de Educación. En esta situación donde LAB está haciendo aportaciones en la mesa, no va a permitir que además de que se excluyan unilateralmente sus aportaciones, el Gobierno Vasco imponga maliciosamente su relato.

De nuevo, exigimos al Gobierno Vasco que deje las apariencias y aborde el tema en profundidad con los y las representantes de las personas trabajadoras, llevando a las mesas de negociación los principios y medidas concretas para hacer frente a la segregación.